

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua	EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/110/EE ZUZENTARAUA, 2008ko abenduaren 16koa, Erkidegoko trenbideen segurtasunari buruzko 2004/49/EE Zuzentaraua aldatzen duena (trenbideen segurtasunerako zuzentaraua)
-------	--

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2008/110/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 por la que se modifica la Directiva 2004/49/CE sobre la seguridad de los ferrocarriles comunitarios (Directiva de seguridad ferroviaria)*» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 345, 2008/12/23koa)

ZUZENTARAUAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/110/EE ZUZENTARAUA
2008ko abenduaren 16koa,
Erkidegoko trenbideen segurtasunari buruzko 2004/49/EE Zuzentaraua aldatzen duena
(trenbideen segurtasunerako zuzentaraua)
(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 71. artikuluan 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾.

Aldez aurretik Eskualdeen Komiteari kontsulta egin diote,
Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedura ⁽²⁾ bete dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

Trenbideko garraioaren zerbitzuan merkatu bateratua sortzeko ahaleginarekin jarraitzeko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004/49/EE Zuzentaraua ⁽³⁾ abiarazi zuten, trenbideen segurtasunean baterako esparru arautzailea ezartzen duena.

(2) Hasiera batean, tren-ibilgailuak zerbitzua ematen jartzea baimentzeko prozedura zuzentarau hauetan biltzen zen: Kontseiluaren 1996ko uztailaren 23ko 96/48/EE Zuzentarauan ⁽⁴⁾, Europarteko abiadura handiko trenbide-sistemaren elkarrengarritasunari buruzkoan; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko martxoaren 19ko 2001/16/EE Zuzentarauan ⁽⁵⁾, ohiko trenbide-sistemaren elkarrengarritasunari buruzkoan, (Erkidegoko trenbide-sistemaren alderdi berri edo eguneratuetarako); eta 2004/49/EE Zuzentarauan, jada erabiltzen diren tren-ibilgailuetarakoan. Legedia hobetzeko xedapenei jarraiki eta erkidegoko legedia sinplifikatu eta modernizatzeko asmoz, egintza juridiko bakarrean txertatu behar dira tren-zerbitzua abiarazteko baimenei dagozkien xedapen guztiak. Horren ondorioz, 2004/49/EE Zuzentarauko 14. artikulua ezabatu eta honetan txertatu behar da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko 2008/57/EE Zuzentarauan ⁽⁶⁾, erkidegoko trenbide-sistemaren elkarrengarritasunari buruzkoan (bertsioategina). Zuzentarau horrek 96/48/EE eta 2001/16/EE Zuzentarauak aldatu zituen, eta aurrerantzean «Trenbideen elkarrengarritasunari buruzko Zuzentaraua» deituko diogu.

(3) 2006ko uztailaren 1ean, 1999ko trenbide bidezko nazioarteko garraioari dagokion hitzarmena (COTIF) indarrean sartu zenean, arau berriak ezarri ziren tren-ibilgailuak erabiltzeko kontratuei dagokienez. CUV (nazioarteko trenbide-trafikoan tren-ibilgailuak erabiltzeko kontratuei buruzko arau bateratuak) gehigarriaren arabera, bagoien jabeek jada ez dituzte derrigorrean bagoiak tren-enpresa batean erregistratu behar. Tren-enpresen arteko (RIV) «Regolamento Internazionale Veicoli» akordioa erabiltzeari utzi zaio, eta, haren edukiaren zati baten ordean, tren-enpresek eta bagoien jabeek akordio pribatu eta boluntario bat (bagoien erabilpenari buruzko kontratu orokorra, GCU) hitzartu dute. Akordio horren arabera, bagoien jabeek

¹ L 256 EO, 2007/10/27koa, 39. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 29koa (C 297 E EO, 2008/11/20koa, 133. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko martxoaren 3koa (C 122 E EO, 2008/05/20koa, 10. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko uztailaren 9koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2006ko apirilaren 25koa.

³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/49/EE Zuzentaraua, Erkidegoko trenbideen segurtasunari buruzkoa, eta tren-enpresei lizentziak emateari buruzko Kontseiluaren 95/18/EE Zuzentaraua eta trenbide-azpiegitura gaitasuna, haiek erabiltzeko arauen aplikazioa eta segurtasun-ziurtagiriak esleitzeari buruzko 2001/14/EE Zuzentaraua (trenbideen segurtasunerako Zuzentaraua) aldatzen dituena (L 164 EO, 2004/04/30koa 44. or.). Bertsio zuzendua: L 220 EO, 2004/06/21koa, 16. or.

⁴ L 235 EO, 1996.9.17koa, 6. or.

⁵ L 110 EO, 2001.4.20koa, 1. or.

⁶ L 191 EO, 2008.7.18koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

arduratuko dira bagoien mantentze-lanak burutzeaz. Aldaketa horiek islatze aldera eta, tren-enpresetako segurtasun-ziurtagiriari dagokionez 2004/49/EE Zuzentaraua aplikagarri izan dadin, «jabe» eta «mantentze-lanez arduratzen den erakunde» kontzeptuak zehaztu behar dira eta, halaber, erakunde horien eta tren-enpresen arteko harremana ere nolakoa den finkatu.

(4) «Jabe» kontzeptuaren definizioak 1999ko COTIF hitzarmenean erabilitako definizioaren ahalik eta antzekoena izan behar du. Askotan dira tren-ibilgailu baten jabetzat har daitezkeen erakundeak; esate baterako: jabea; bagoi-flota bat ekonomikoki ustiatzen duen enpresa bat; tren-enpresa bati, erosteko aukera tarteko, tren-ibilgailuak alokatzen dizkion konpainia; tren-enpresa bat edo azpiegitura-kudeatzaile bat, tren-ibilgailuen mantentze-lanak egiteko tren-ibilgailuak erabiltzen dituena.

Tren-enpresek eta azpiegitura-kudeatzaileek tren-ibilgailuak garraio bide modura baliatu ahal izateko prestatzen dituzte tren-ibilgailuak aipatutako erakunde horiek. Edozein zalantza alboratzeko, jabeak ibilgailuen erregistro nazionalan (RNV) identifikatuta egon behar du argi eta garbi (tren-ibilgailuen elkarreragingarritasunari buruzko Zuzentzarauko 33. artikuluan ezartzen da erregistroaren beharra).

(5) Trenbide garraioan indarrean dagoen legediarekin koherente izateko eta beharrezkoa ez den kargarik ez sortzeko, Zuzentzarau honen aplikazio-eremuan trenbide historikoak, museokoak eta turistikoak ez barneratzeko baimena eman behar zaie estatu kideei.

(6) Tren-ibilgailu bat zerbitzuan edo sarean erabilgarri jarri aurretik, RNVn mantentze-lanez arduratuko den erakundea zein izango den adierazi beharko da. Mantentze-lan horietaz tren-enpresa bat, azpiegitura-kudeatzaile bat edo jabe bat ardura daiteke.

(7) Estatu kideei aukera eman behar zaie mantentze-lanak egingo dituen erakundea zehazteko eta hura ziurtatzeko obligazioa neurri alternatiboen bidez betetzeko, kasu hauetan: beste herrialde batean matrikulatutako tren-ibilgailuak badira eta herrialde horretako legediaren arabera egiten bada mantentze-lana; erkidegoko trenbide-sare nagusian erabiltzen den errail-zabaleraren zabalera desberdina duten trenbide-sarean erabiliko diren tren-ibilgailuak badira, eta horien mantentze-lanak egiteaz arduratuko den erakundea zehazteko betebeharra beste herrialde batzuekin adostutako akordioen bidez egiten bada; trenbide historikoetan, museoetan, turismorako trenbideetan erabiltzen diren tren-ibilgailuak badira; eta material militarra eta garraio bereziak egiteko ibilgailuak izanik, zerbitzuan sartu aurretik herrialde bakoitzeko segurtasun-erakundearen *ad hoc* baimena behar badute. Egoera horietan, estatu kideek eskuduntza izan behar dute bere eskumeneko sarean tren-ibilgailuak onartzeko, nahiz eta tren-ibilgailu horien mantentze-lanak egiteaz arduratuko den erakundea zein den ezarri gabe egon edo erakunde hori ziurtatzeke egon. Edonola ere, salbuespen horiek dagokion estatu kidearen erabaki ofiziala beharko dute eta Europako Trenbide Agentziak (aurrerantzean «Agentzia») salbuespen horiek aztertu beharko ditu, segurtasunari buruzko txostenean.

(8) Mantentze-lanez arduratuko den erakunderik erregistratuta edo ziurtatuta ez duen tren-ibilgailuren bat erabiltzen badu tren-enpresa edo azpiegitura-kudeatzaile batek, tren-ibilgailu horren erabilpenari dagozkion arrisku guztiak kontrolatu beharko ditu. Tren-enpresa edo azpiegitura-kudeatzaile horrek frogatu beharko du baduela arrisku horiek kontrolatzeko gaitasuna: segurtasuna kudeatzeko sistemaren ziurtagiriaren bidez eta, hala dagokionean, segurtasun-ziurtagiri edo -baimenaren bidez egingo du.

(9) Merkantziak garraiatzeko bagoiei dagokionez, mantentze-lanez arduratzen den entitateak ziurtatuta egon behar du. Ziurtatze-sistema Agentziak garatuko du eta Batzordeak onartuko. Mantentze-lanen arduraduna tren-enpresa edo azpiegitura-kudeatzaile bat bada, ziurtatze hori segurtasuna ziurtatzeko edo baimentzeko prozeduran barneratu beharko da. Erakunde horri emango zaion ziurtagiriak bermatuko du bere ardurapeko merkantzia-bagoi guztiek Zuzentzarau honetan ezartzen diren mantentze-baldintzak betetzen dituztela. Ziurtagiri horrek erkidego osoan izango du balioa eta erakunde horiek finkatutako mantentze-sistema ikuskatzeko eskumena duen organismo batek igorri beharko du. Merkantzia-bagoiak nazioarteko trafikoan sarritan erabiltzen direnez eta haien mantentze-lanez arduratzen den entitateak estatu kide batean baino gehiagotan kokatutako lantegiak erabili nahi izan ditzakeenez, ziurtagiria ematen duen organismoak erkidego osoan egin ahal izan beharko lituzke kontrolak.

(10) Mantentze-baldintzak trenbideen elkarreragingarritasunari buruzko Zuzentzarauaren barruan taxutzen ari dira; hain justu, material gurgildunerako zehaztutako elkarreragingarritasunezko zehaztapen teknikoan (ETI) barnean. Zuzentzarau hau indarrean sartzearekin batera, ezinbestekoa da koherentzia bermatzea ETI horien eta mantentze-lanez arduratuko den erakundea ziurtatzeko baldintzen artean. Batzordeak helburu hori erdiesteko, hala badagokio, dagozkion ETIak aldatuko ditu. Horretarako, Zuzentzarauan trenbideen elkarreragingarritasunari buruz ezartzen den prozedurari jarraituko dio.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(11) Estatu kideak ez daude Zuzentarau honetako helburuak askitasunez betetzeko moduan; hau da, Erkidegoko trenbideen segurtasuna garatu eta hobetzeko egokieran, eta ekintzaren nondik norakoa kontuan hartuta, helburu hori hobeto lor daiteke Erkidegoan. Horrenbestez, Erkidegoak horretarako neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(12) Egokia da 2004/49/EE Zuzentaraui betearazteko nahitaezkoak diren neurriak onartzea, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakia ¹, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen, betez.

(13) Eta egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea 2004/49/EE Zuzentaraui eranskinak berrikusteko eta egokitzeko, baterako segurtasunerako metodo eta helburuak egokitzeko eta berrikusteko eta mantentze-lanak ziurtatzeko sistema bat onartzeko. Neurri horiek orokorrak eta 2002/87/EE Zuzentaraui funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(14) Estatu kide batek ez badauka trenbide-sistemarik, ez eta hura berehala edukitzeko asmorik ere, betebeharrak neurrigabeak eta zentzugabeak bete beharko litzake zuzentarau honetako trenbide-garraioari buruzko xedapenak aplikatzeko. Horren ondorioz, trenbide-sare bat ez duen bitartean, Estatu kide hori Zuzentarau hau barneratu eta aplikatzeko betebeharretik at geratu beharko litzateke.

(15) «Legeak hobeto egitea» Erakundearen arteko Akordioaren ² 34. paragrafoan araututakoa betez, estatu kideei eskatzen zaie Zuzentaraui eta transposizio-neurriak bat datozela erakusten duten taulak egin eta publiko egin ditzaten, beraien onerako zein Erkidegoaren onerako baita.

(16) Horrenbestez, 2004/49/EE Zuzentaraui aldatu egin behar da.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2004/49/EE Zuzentaraui honela aldatu da:

2. artikuluan, 2. paragrafoan honako puntu hauek erantsiko dira:

«d) sare nazionalean ibiltzen diren tren-ibilgailu historikoak, betiere, tren-ibilgailu horien zirkulazio segurua bermatze aldera, segurtasunezko arau eta erregelamendu nazionalak betetzen dituztenean.

e) bakoitzaren sarean dabilzan tren historikoak, museoetakoak eta turistikoak, baita lantegi, tren-ibilgailuak eta langileak ere»

2) 3. artikuluan honako definizio hauek erantsi dira:

«s) “jabea”, garraiatzeko tren-ibilgailu bat ustiatzen duen pertsona edo erakundea, bai bere jabea izanik edo hura erabiltzeko eskubidea duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko 2008/57/EE Zuzentaraui³ (bertsio bategina) 33. artikuluan ezarritako tren-ibilgailuen erregistro nazionalean (RNV) erregistratuta dagoena. Zuzentaraui hori Erkidegoko trenbide-sistemaren elkarreragingarritasunari buruzkoa da eta «Trenbideen elkarreragingarritasunari buruzko Zuzentaraui» deituko diogu.

t) “mantentze-lanez arduratzen den erakundea”, tren-ibilgailu baten mantentze-lanak egiteaz arduratzen den erakundea eta RNVn horrela erregistratuta dagoena;

u) “tren-ibilgailua”, trenbideetan zehar bere gurpilekin ibil daitezkeen tren-ibilgailu bat, trakzioduna edo trakziorik gabea. Tren-ibilgailu bat egiturazko eta funtziozko azpisistema bat edo gehiagok osatzen dute edo azpisistema horien zenbait atalek.

¹ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

² C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

³ L 191 EO, 2008.7.18koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3) 4. artikuluan, 4. paragrafoan «bagoien jabe» jartzen duen tokian «jabe» jarri behar da.

4) 5. artikuluan, 2. paragrafoa aldatu eta honela utzi da: «2. 2009ko apirilaren 30a baino lehenago I. eranskina berrikusiko da bereziki, bertan ICSen baterako definizioak eta istripuen kostuei dagozkien baterako kalkulu-metodoak txertatzeko. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hori, 27. artikuluko 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko da.».

5) 6. artikulua honela aldatu da:

a) 1. paragrafoan jarrita dagoena kendu, eta, horren ordez, testu hau jarri da:

«1. 2008ko apirilaren 30a baino lehenago Batzordeak lehen MCS serie bat onartuko du, gutxienez, 3. paragrafoan a) idatz-zatian deskribatzen diren metodoak barneratzen dituena. Serie hori *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da. 2010eko apirilaren 30a baino lehenago, Batzordeak bigarren MCS serie bat onartuko du, 3. paragrafoan deskribatzen diren gainerako metodoak barneratzen dituena. Serie hori *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri horiek 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.».

b) 3. paragrafoko c) idatz-zatiaren ordez, testu hau jarri da:

«c) Trenbide-sistemaren egiturazko azpisistemak dagozkion funtsezko baldintzen arabera ustiatzen eta mantentzen direla frogatzeko metodoak, oraindik elkarrengarritasuneko zehaztapen teknikoan (ETI) bitartez zehazten ez diren heinean.

c) 4. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«4. MCSak aldizka berrikusiko dira, aplikazioaren esperientzia eta trenbideen segurtasunari buruzko ebaluazio orokorra aintzat hartuta, bai eta estatu kideen betebeharrak ere, 4. artikuluko lehen paragrafoan zehaztutakoak. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri hori 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da.

6) 7. artikulua honela aldatu da:

a) 3. paragrafoko lehen eta bigarren lerroak ordez, testu hau jarriko da:

«3. OCS proiektuen lehen seriea helburuei eta estatu kideen segurtasun-mailari buruzko azterketa batean oinarrituko da eta gaur egun trenbide-sisteman dagoen segurtasun-maila estatu kide bakarrean ere ez murriztea bermatuko du. Batzordeak 2009ko apirilaren 30a baino lehenago onartuko ditu proiektu horiek eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri hori 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da.

OCS proiektuen bigarren serieak lehenengo OCS serietik eta haren aplikaziotik eskuratutako esperientzia izango du oinarri. Proiektu horietan segurtasuna gehiago hobetzea eskatzen duten alderdiak adieraziko dira. Batzordeak 2011ko apirilaren 30a baino lehenago onartuko ditu proiektu horiek eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri hori 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da.

b) 5. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«5. OCSak aldizka berrikusiko dira; horretarako, trenbideen segurtasunaren bilakaera orokorra aintzat hartuko da. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri hori 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da.

7) 10. artikulua honela aldatu da:

a) 1. paragrafoan, bigarren lerroak ordez testu hau jarriko da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«Segurtasun-ziurtagiriaren helburua da erakustea tren-enpresak segurtasuna kudeatzeko berezko sistema sortu duela eta tren-enpresa hori betetzeko moduan dela elkarrengarritasunezko zehaztapen teknikoetan ezartzen diren baldintzak nahiz Erkidegoko legediari eta segurtasunezko arau nazionalen dagozkien bestelako xedapenak, arriskuak kontrolatzeko eta sarean garraio-zerbitzuak modu seguruan emateko xedez.»; b) Bigarren paragrafoko b) idatz-zatiaren ordez, testu hau jarriko da:

«b) ziurtagiri bat, tren-enpresak sarean zerbitzuak modu seguruan emateko beharrezkoak diren baldintza zehatzak bete ahal izateko neurriak onartu dituela egiaztatzen duena. Baldintza horietan elkarrengarritasunezko zehaztapen teknikoen eta segurtasunezko arau nazionalen aplikazioa barnera daiteke, sarea ustiatzeko arauak, langileen ziurtagiriaren onarpena eta tren-enpresek erabiltzen dituzten tren-ibilgailuak zerbitzuan jartzeko baimenak barne. Egiaztari hori tren-enpresak IV. eranskinean ezarritakoaren arabera aurkeztutako dokumentuan oinarrituko da».

8) Artikulu hau sartuko da:

«14 bis artikulua

Tren-ibilgailuen mantentze-lana;

1. Zerbitzuan jarri edo sarean erabili aurretik, tren-ibilgailu bakoitzari haren mantentze-lanaz arduratuko den erakunde bat esleitu beharko zaio. Erakunde horrek ibilgailuen erregistro nazionalean (RNV) erregistratuta egon beharko du, trenbideen elkarrengarritasunari buruzko Zuzentarauko 33. artikuluari jarraiki.

2. Mantentze-lan horietaz tren-enpresa bat, azpiegitura-kudeatzaile bat edo jabe bat ardura daiteke.

3. Tren-enpresek eta azpiegitura-kudeatzaileek tren baten funtzionamendu seguruaren inguruan 4. artikuluan ezartzen denari buruz duten erantzukizuna betetzeaz gain, mantentze-lanez arduratuko den erakundeak haren ardurapean dagoen tren-ibilgailuak modu seguruan funtzionatzeko baldintzak betetzen dituela bermatu beharko du mantentze-sistema baten bidez. Helburu horrekin, mantentze-lanez arduratuko den erakundeak tren-ibilgailu horietan hauek betetzen direla bermatuko du:

a) tren-ibilgailu bakoitzaren mantentze-lanen espedientea,

b) indarrean dauden baldintzak, mantentze-lanei dagozkien arauak eta elkarrengarritasunezko zehaztapen teknikoak (ETI) barne.

Mantentze-lanez arduratzen den erakundeak mantentze-lanak bere kabuz egingo ditu edo horretarako kontratatutako mantentze-lantegietara joz.

4. Merkantzia-bagoiei dagokienez, mantentze-lanez arduratzen diren erakunde guztiek ziurtatze-organismo batek emandako ziurtagiria izango dute (organismo hori 5. paragrafoaren arabera egongo da kreditatuta edo aitortuta), edo herrialde bakoitzeko segurtasun-erakunderen batek emandakoa. Ziurtatze-prozesua independentzia, eskuduntza eta inpartzialtasun irizpideetan oinarrituko da; esate baterako, EN 45 000 Europako arau-serieetan. Aitorpen-prozesua ere independentzia, eskuduntza eta inpartzialtasun irizpideetan oinarrituko da.

Mantentze-lanez arduratzen den erakundea tren-enpresa edo azpiegitura-kudeatzaile bat bada, herrialde bakoitzeko segurtasun-erakundeak egiaztatuko du bosgarren paragrafoaren arabera onartu beharreko baldintzak betetzen direla. Horretarako, 10. artikuluan edo 11. artikuluan ezarritako prozedurei jarraituko die, eta prozedura horietan zehaztutako ziurtagirietan hala berretsiko da.

5. Agentziaren gomendioa kontuan hartuz, Batzordeak merkantzia-bagoien mantentze-lanez arduratzen den erakundea ziurtatzeko sistema bat arautzen duen neurri bat onartuko du, 2010eko abenduaren 24a baino lehenago. Sistema horen arabera onartutako ziurtagiriek 3. paragrafoan adierazten diren baldintzak betetzen dituztela frogatuko dute. Aipatutako neurri horrek hauei buruzko baldintzak bilduko ditu:

a) erakundeak ezarritako mantentze-sistemari buruzkoa;

b) erakundeari onartutako ziurtagiriaren formatuari eta baliozkotasunari buruzkoa;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) ziurtagiriak bidaltzeaz eta ziurtatze-sistemak behar bezala funtziona dezan beharrezko kontrolak bermatzeaz arduratzen d(ir)en organismoa(k) kreditatzeko edo aitortzeko irizpideei buruzkoa;

d) ziurtatze-sistema aplikatzeko datari buruzkoa. Jadanik mantentze-lanez arduratzen diren erakundeentzat urte bateko trantsizio-epea egongo da.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (eta Zuzentaraua osatzeko) neurri hori 27. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko da.

Agentziak egindako gomendio bati jarraituz, Batzordeak neurri hori berrikusiko du 2018ko abenduaren 24a baino lehenago, tren-ibilgailu guztiak barneratu eta, beharrezkoa balitz, merkantzia-bagoiei aplikagarri zaien ziurtatze-sistema eguneratzeko.

6. 5. paragrafoari jarraiki emandako ziurtagiriek Erkidego osoan izango dute balioa.

7. Agentziak 5. paragrafoan ezarritakoaren arabera aplikatutako ziurtatze-prozedura ebaluatuko du; horretarako, txosten bat aurkeztuko dio Batzordeari, dagokion neurria indarrean sartu eta gehienez hiru urteko epean.

8. Estatu kideek, kasu hauetan, aukera izango dute mantentze-lanez arduratuko den erakundea zehazteko eta ziurtatzeko obligazioa neurri alternatiboen bidez betetzeko:

a) beste herrialde batean matrikulatutako tren-ibilgailuak badira, herrialde horretako legediaren arabera mantentzen direnak;

b) Erkidegoko trenbide-sare nagusian erabiltzen den errail-zabaleraren zabalera desberdina duten trenbide-sarean erabiliko diren tren-ibilgailuak badira, eta 3. atalean ezarritako baldintzak betetzeko beste herrialde batzuekin adostutako akordioak badituzte.

c) 2. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako tren-ibilgailuak badira, eta zerbitzuan sartu aurretik herrialde bakoitzeko segurtasun-erakundearen *ad hoc* baimena behar duten material militar eta garraio bereziak badira. Kasu horretan salbuespenak onartuko dira, gehienez bost urteko epeaz.

Neurri alternatibo horiek dagokion herrialdeko segurtasun-erakundeak onartutako salbuespenez aplikatuko dira:

a) tren-ibilgailuak matrikulatzerakoan mantentze-lanez arduratzen den erakundea zehazteare ninguruan trenbideen elkarrengarritasunari buruzko Zuzentarauko 33. artikuluan ezarritakoari jarraitzen bazaio.

b) tren-enpresei eta azpiegitura-kudeatzaileei segurtasunezko ziurtagiriak eta baimenak ematerakoan, mantentze-lanetan arduratzen den erakundea zehazteari edo egiaztatzeari buruz Zuzentarau honetako 10 eta 11. artikuluetan ezarritakoari jarraitzen bazaio.

Salbuespen horiek Zuzentarau honetako 18. artikuluan agertzen den segurtasunari buruzko urteko txostenean zehaztu eta justifikatuko dira. Uste bada Erkidegoko trenbide-sisteman beharrezkoak ez diren arriskuak hartzen direla, Agentziak berehala jakinaraziko dio Batzordeari. Batzordea eragindako alderdiekin jarriko da harremanetan, eta, hala bada, dagokio, estatu kideari salbuespen-erabakia atzera botatzeko eskatuko dio.».

9) 16. artikuluko 2. paragrafoa honela aldatu da:

a) a) idatz-zatiaren ordez, testu hau jarriko da:

«a) trenbideen elkarrengarritasunari buruzko Zuzentarauko 15. artikuluan arabera trenbide-sistema osatzen duten egiturazko azpisistemak abiarazteko baimena, eta dagokion funtsezko baldintzen arabera ustiatzen eta mantentzen direneko egiaztapena;»;

b) b) idatz-zatia ezabatu egin da;

c) g) idatz-zatiaren ordez, testu hau jarri da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«g) tren-ibilgailuak ibilgailuen erregistro nazionalan (RNV) egokiro erregistratuta egotearen bermea eta bertan segurtasunari dagokion informazioa zuzena izatearen eta eguneratuta egotearen bermea;».

10) 18. artikuluan idatz-zati hau erantsi da: «e) 14 *bis* artikuluko 8. paragrafoaren arabera adostu diren salbuespenak.».

11) 26. artikulua ordez, testu hau jarriko da:

«26. *artikulua*

Eranskinak egokitzea

Eranskinak aurrerapen tekniko eta zientifikoak egin ahala egokituko dira. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hori, 27. artikuluko 2 *bis* paragrafoan agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartuko da.».

12) 27. artikulua honela aldatu da:

a) Paragrafo hau sartu da:

«2 *bis*. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.».

b) 4. paragrafoa kendu da.

13) II. eranskinean 3. paragrafoa kendu da.

2. *artikulua*

Aplikazioa eta barne-ordenamendu juridikoan txertatzea

1. Estatu kideek 2010eko abenduaren 24a baino lehen jarri beharko dituzte indarrean Zuzentarau hau betetzeko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak. Batzordeari, berehala emango diote xedapen horiek biltzen dituen testuaren berri.

Estatu kideek onartzen dituzten xedapen horiek erreferentzia egingo diote Zuzentarau honi edo erreferentzia hori izango dute argitalpen ofizialean. Estatu kideek aipatutako erreferentziaren modalitateak ezarriko dituzte.

Txipreko Errepublikak eta Maltako Errepublikak ez dute obligaziorik legedia Zuzentarau hau betetzeko egokitzeko, lurralde barruan trenbide-sistematik ez duten bitartean.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honekin araututako eremuan onartzen diren barne-zuzenbideko xedapen nagusien testuak.

3. *artikulua*

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

4. *artikulua*

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea H.-G.PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea B.LE MAIRE